

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa
Kontratuak: Kontratu administratibo berezia, prozedura irekia.
Espediente zenbakia: ZE10-V-28

BERMEOKO HIRUBUSA (BERMIBUSA) UDAL-GARRAIO ZERBITZUA
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Bermeoko hirubusaren (Bermibus) udal-garraio publikoko zerbitzua ematea oinarrian duen administrazio kontratua gauzatzea, espedientean agertzen den Baldintza Teknikoen Agirian zehazturik dauden kontratuzko izaera izango duten ezaugarriekin. Kontratuak administrazio kontratu berezi izaera dauka eta izaera horrek Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19.1.b) artikuluan xedatutakoa dauka oinarri.

2. EPEA

Kontratu horren iraupena urtebetekoa izango da. Kontratuaren epea beste urte betez LUZAGARRIA izango da (1+1), alde guztien arteko adostasunez, eta kontratazio organo eskudunaren berariazko erabakia beharko da horretarako.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren urteko prezioa lizitazioaren aurrekontu gisa erabiliko dena, hau izango da: 92.727,27 €, BEZ kanpo. %10eko BEZari dagokion zenbatekoa 9.272,73 eurokoa da (Danatara: 102.000,00 €.).

Luzapenak barne, aurreikusten dan kontratu osoaren prezioa, honako da, BEZa kanpo: 185.454,54 euro. %10eko BEZari dagokion zenbatekoa 18.545,46 eurokoa da (Danatara: 204.000,00 €.).

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu dezakete, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela. Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko dau zein dan prezioa eta zein dan BEZari dagokion diru zenbatekoa. Kopuru horretan barneratutzat joko dira kontratu horretako xede diren zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak.

4. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da 2.014 urteko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaitan eskumena duen organoak. Aplikagarria den partida hau

izango da: 00600-51310-227.08.04

5. NOLA ORDAINDU

Prezinoa hileror ordainduko da, behin faktura egokia aurkeztu eta, eskumendun organoak onartu ondoren. Ordainketa, faktura egokia aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan egin beharko da derrigor.

Fakturarekin batera dagozkion zerrendak errejistratutako bidaiarien orduak eta datekin aurkeztu behar dira. Zerrenda hauek databasez aztertzeko euskarri informatikoa egokian (access, excel, ...) ere aurkeztu beharko dira.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioa berraztertzeko, honako formula erabiliko da: aurreko urteko KPIaren % 85.

7. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3 artekoa izango da, BEZ kanpo, (2.781,81 euro). Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia irizita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, lehiaketaren oinarriko aurrekontuaren edo esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun balioudunekoa izango da, esleipena proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Erabiltzaileek zerbitzua erabiltzeagaitik ordaindu beharreko tarifak aldatzeko aukerea izango dau Administrazioak. Esleipendunak zerbitzuaren erabiltzaileek bidaiengaitik ordaindutako tarifetatik kobratutako dirukopuru osoa Udalari eman beharko dio hilerio, aurkeztutako fakturan bidaiariengaitik jasotako dirukopuruak zehaztuta.

Zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritz kudeatuko da. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, interes publikoko arrazoiengaitik aldaketak egiteko aukera izango dau, baldin eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuko V. tituluan aurreikusitako baldintzak betetzen badira, Lege berak 282. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian finkatutako baldintzak zehatz jarraituz.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

Era berean, aitatutako Errege Dekretu Legegileko 285. eta 286. artikuluen arabera, Administrazioak, bai esleipendunaren ez betetzeagaitik eta, baita be interes orokorrak halan eskatzen daualako, zerbitzuan esku hartzeko, zerbitzua kentzeko edota zerbitzua erreskatatzeko ahalmena izango dau, esleipendunak eduki leikezan indemnizatze eskubide edo betebeharren kalte barik.

*Enpresa esleipendunaren langileen subrogazioa: 1. Zerbitzu hau errepikatzen denez eta hori ematean parte hartzen duen pertsonalaren lan-egonkortasuna bermatze aldera, enpresa esleipendunak langileen subrogazioa bermatuko du, gaiaren inguruan sektoreko hitzarmenek esaten dutena albo batera utzita. Subrogazio klausula kasu hauetan bakarrik aplikatuko da:

- a) Lan-kontratua daukan eta kontratua egiten duen erakundearentzat azken sei hilabetean gutxienez lan egin duen langileari bakarrik eragingo dio subrogazioak. Ordezkapenak ere sartuko dira, amaitu arte.
- b) Subrogazioak ez die eragingo kontratua lagatzen duen enpresako jabeai, akziodunei, zuzendaritzako kideei, bitarteko karguei eta jabe, akziodun, zuzendaritzako kide eta bitarteko kargu horien bigarren mailako familiartekoak.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak Baldintza Teknikoen pleguan tarifen kobrorako zehaztutako sistemak erabili beharko ditu derrigorrez eta txartel sistemaren kudeaketa egokia ziurtatu behako du.

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek betetzen ez

badira.

Lan arriskuen prebentzioa dala eta, 31/1995 Legeak xedatzen dauana bete beharko da zehatz, besteak beste:

- Laneko arrisku eta lan osasunaren prebentzioa planifikatu eta, eta, aldikako ebaluaketak egin.
- Prebentzinoko neurri kopuru koherente eta orokorrak ezarri eta euren efektibotasuna kontrolatu.
- Lan arrikuen eta lan osasunaren prebentzinoan, langilearekiko betebeharrak bete beharko dauz zehatz, hala nola, parte hartze eskubidea, informazio eskubidea, formakuntza eta komunikazio eskubidea.

Zerbitzuak emoten jardungo dauan enpreseak, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guziak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz burutuko beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharez, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme legez, I. eranskin legez agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailatzat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daiekizan

erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen jakezan kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADEUTSEZ.

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hori horrela, zerbitzu honeguz sortu leuekiaz kalte eta galerei aurre egiteko, esleipendunak, erantzukizun zibilari era mugabako batetan aurre egiteko, egokia dan aseguru polizea eukiko dau kontratatuta eta, Udalak, baldintza hau kontratuak irauten dauan denbora guztian zehar betetzen dauala ziurtatzeko, aseguru polizaren eukitea era egokian kreditatu daiten eskatu ahal izango dau uneoro.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahalko du hurrengo kasu zehatzetan eta ezartzen diren mugekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 106. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- Egutegiak
- Ordutegiak
- Ibilbideak

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da, zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifak aldatuz.

Aldaketok, kontratuaren erregimen finantzarioari eragiten diotenean, Administrazioak kontratista konpentsatu beharko du, kontratua esleitu zenean, oinarrizkotzat hartuak izan ziren inguruabar ekonomikoen oreka mantenduz

Administrazioak hartutako erabakiek zerbitzuaren garapenerako eragin ekonomikorik ez duten kasuetan, kontratistak ez du horiengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Administrazioak, hurrengo kasuetan, kontratuaren oreka ekonomikoa leheneratu beharko du, dagokion alderdiaren alde:

- Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, eta I. liburuko V. tituluaren ezarritakoarekin bat etorritik, kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen dituzten.
- Administrazioaren egintzek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakartenean.
- Ezinbesteko kasuek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakartenean. Baldintza hauetarako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 231. artikuluan zerrendatutakoak ulertuko dira ezinbesteko arrazoi legez.

Azaldutako kasuetan, kontratuaren oreka ekonomikoaren berrezarpenerako, kasu bakoitzean dagokion neurriak hartuko dira. Neurri hauek erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifen aldaketa, kontratua burutzeko epearen edo iraupenenaren aldaketa eta, orokorrean, kontratuaren eduki diren klausula ekonomikoen edozelako aldaketa izan daitezke. Era berean, Administrazioaren egintza eta ezinbesteko kasuetan, kontratua luzatu ahalko da, hasiera batean kontratua burutzeko finkatu den epearen %10era arteko, legalki kontratu mota honetarako finkatutako gehienezko epeak errespetatuz (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 282. Artikulua).

Gauzak horrela, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

12. BERME-EPEA

Kontratuaren izaera dala eta, ez da berme eperik aurreikusten.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (212. Artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (212.7. Art).

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 286. artikuluetan azaltzen direnak izango dira, 223. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak izan ezik.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 288. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Esleipena egiterakoan, honako erispide honeek hartuko dira oinarritzat,

Prezioa: 70 puntu.

Zerbitzua kudeatzeko proiektua: 10 puntu.

Zerbitzua emateko erabiliko diren baliabideak: 10 puntu.

Bestelako hobakuntzak: 10 puntu.

Gehienezko puntuazioa: 100 Puntu

Zerbitzua emoten jardungo dauan enpresek, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

Administrazio-baldintza zehatzen orri hauetan esleipenerako erizpide bezala ezarritako edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez

badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena ekonomikoa egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta ezarritakoak izango dira. Kaudimen teknika egiaztatzeko, aldiz, partehartzaileek azken bost urteetan, 12 hilabetean gitxienez (segiduan zein zatika), eguneroko maiztasunagaz eta ordutegi jakin batetan, edozein uri edo herri barruko kale ezbardinak zeharkatuz, ibilbide jakin bat eginez eta geraleku jakin batzuetan jendea jasoz, garraio zerbitzu publikoa zein pribatua emon dabela kreditatu beharko dabe, Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 79. Eta 78. Artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bestalde, kontutan eukita zerbitzu publiko hori hainbat erabiltzaileeri eragingo deutsoela, esleipendunak erabiltzaileen arretarako bulego bat eduki beharko dau, derrigor, Bermeoko herrian, ordutegi honen arabera zabalik egongo dana: astelehenetik barikura, 9:30etatik 13:30etara.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatuzko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu aurkeztu ahal izango da:

LEKUA: Administrazio honetako Erregistro Orokorra (Berh@z – Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua), Ertzilla kalea, 6-8, 48370 Bermeo).

EPEA: Iragarkia Bermeoko Udaleko web orrialdean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

ORDUA: Astelehenetik barikura, 08:30-14:30. Martitzenetan eta egunetan 16:30-19:00. Larunbatetan 10:00-13:00. * Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

PROPOSAMENAK AURKEZTEA: proposamenak ondoko lekuan eta ordutegian **aurkeztuko** dira, **egutegiko hamabost (15) eguneko epean**, lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. "A" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA".

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalardea.

- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (III. Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VI. Eranskina).
- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (Pleguetako 17. Atalean eta VII eranskinean finkatutakoaren arabera).
- h) Erabiltzaileen arretarako bulego bat zabaltzeko konpromisoaren agiria (VIII. Eranskina).
- i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzaileren Erregistroan izena eman badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (V. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, errekerimendua jaso eta gero, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Errekerimendua jasoten dauan parte hartzaileak 10 eguneko epea izango dau hori egiteko.

“B” kartazalaren azpititulua hau izango da: “FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA”. Kartazal honetan irispide ez matematikoak justifikatzeko agiri guztiak eta irispide ez matematiko horien inguruko dosierra sartuko litzateke (Zerbitzua kudeatzeko proiektua, enpresearen kalitatea kreditatzeko egiaztagiria, bestelako hobakuntzak, zerbitzua emoteko jarriko dan ibilgailuaren datu zehatzak: plazak, neurriak, erosketa urtea, matrikula zenbakia, e.a. eta, matxura kasuan, ordezkatzeko erabiliko dan ibilgailuaren datu zehatzak...).

“C” kartazalaren azpigitulua hau izango da: “PROPOSAMENA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren II. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dosier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.
- c) Hala aurreikusten bada, C gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.
- d) Ez dira onartuko proposamen hauek:
 - 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
 - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
 - 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
 - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
 - 5) Pleguaren II. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - 6) Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- e) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- f) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa (“A” kartazala) sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango deitso lehiatzaileari akatsa zuzen dezan (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. B kartazala zabalduko da arinago (irispide ez matematikoak) eta,

behin puntuatuta daudenean, C kartazala (Proposamena eta irispide matematikoak) zabalduko da jendaurrean. "A" kartazalean egon ahal izan diren akatsak zuzentzeko eperik eman bada, epe horrek ez du hilabeteko gehienezko epearen zenbaketa atzeratuko, eta berau eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz, posta elektronikoz edo faxez.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar duen Kontratazio Organoari pasako dio esleipen proposamena.

20. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Prezioaz gainera irizpide desberdinak baloratzen badira, esleipena 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Edozein kasutan, esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen den hurrenkera jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen den parte hartzaileari, errekerimendua egingo zaio, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko:

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.

Epe horretan egingo ez balitu, uko egiten duela ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko zaio aitaturakoak egin ditzan. Uko egiten duenaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko du.

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da, 151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz.

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahalko dute epe honi dagokionez).

Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazioa egin dezan.

Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzzaileek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak hauek burutu beharko ditu:

- Administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa

formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAO-n ere publikatu beharko da.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

21. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala”.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

23. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dauden obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.

113. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dauden kasuetan ematen diren 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekin loturiko kontratazio organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horiek esleipena bertan behera uztea edota esleipen berri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailerik hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen duten baldintza agiria, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agiriak; tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute. Prozedura jarraitzea eragozten duten tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailerik baztertua erabakitzen duten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientearen egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango dizkiete interesdunek, zuzen ditzaten, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dizkieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsua beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dute errekurtsuak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horiek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badituzte, toki erregimen eta kontratazio arloari dagokionean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen den Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu duten organo berak izango du eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsua aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko du kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsuaren objektu izango den prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori

errekurtsoaren aurkezpenarako hurrengo paragrafoan ezartzen den epe barruan egin beharko du.

Kontratazio arloko errekurtsio bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsioa pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da beroriek jasotzen direnetik edo lizitatzaila edo hautagaien ezagutzarako beraien eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsioa lizitazio iragarkiaren aurka jartzen denean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtsio idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsioaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtsio bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helaraziko zaie gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsioen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsioaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die.

Errekurtsioaren ebazpenak errekurtsioa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekurtsioaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsioaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diran auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

....., 20....(e)koaren(a)

I ERANSKINA

DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat zerbitzua egingo dauzala.

Horreek obra/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK,enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKo UDALaren kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardua eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentziasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, enpreseak onartzen dauzala hurrengo

AITORPENAK

LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKO UDALaren ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEOKO UDALAk itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEOKO UDALAgaz daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiak agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005

Dekretua.

Horrezaz ganera,enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren idatzizko baimen barik.

BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOKO UDALAK "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean.enpreseak, "eragileak", BERMEOKO UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuari, BERMEOKO UDALAKenpreseak aurka jo leike Jurisdikzino Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be.enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOKO UDALAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietaraenpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonen amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

BOSGARRENA .- *Ebazpena*

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago.enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Kirol Patronatuak

itzultzeko eskatzen ez badeutso.

SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2014koarenan

II. ERANSKINA
Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
Helbidearekin eta zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo
..... Helbidea eta IFZ daukan
..... izeneko enpresaren ordezt,

AITORTZEN DUT:

- I.- xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzeko enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa€koa (zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:
NAN:

III. ERANSKINA
Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:
NAN:

IV. ERANSKINA
Lizitatzailleek betetzeko inprimakia

ENPRESAREN DATUAK

1. Enpresa indibiduala

Izena:
NAN:
Helbidea:
Fax:
Tfnoa:
PK:
Erregistratutako merkataritza- izena:
.....ko Merkataritza Erregistroan
datan inskribatuta.

2. Gizarte-enpresa:

Izena:
IFZ:
Eratze-data:
.....ko Merkataritza Erregistroan
datan inskribatuta.
Helbidea:
Fax:
Tfnoa:
Ondorengo giza-eskriturak:

IZENA	DATA
1. Aldatzea/...../.....
2. Handitzea/...../.....
3. Beste batzuk/...../.....

3. Ahalduna:

Izena:
Ahalordetze-eskritura :

- Data :

-ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN:

V. ERANSKINA

**Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru Aldundiaren
Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren Zinpeko Aitorpenaren
Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakidune
ko NANarekin, helbidea eta
.....IFZ daukan izeneko
enpresaren ordeaz,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN
DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari dagozkionak.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:
NAN:

VI. ERANSKINA KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordez,
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honen negozioen kopurua ondokoa izan dala:

- 2011. Urtea:

- 2012. Urtea:

- 2013. Urtea:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

VII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko
NANarekin, helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt,
xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken bost urteetan, 12 hilabetean gitxienez (segiduan zein zatika), eguneroko maiztasunagaz eta ordutegi jakin batetan, edozein uri edo herri barruko kale ezbardinak zeharkatuz, ibilbide jakin bat eginez eta geraleku jakin batzuetan jendea jasoz, garraio zerbitzu publikoa zein pribatua emon izan dogula, hurrengoan arabera:

URTEA	HERRIA	EPEA	ZIURTAGIRIA

2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:

3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:

4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen tekniko frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:
NAN:

VIII. ERANSKINA
Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordezt,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Esleipendun izatekotan, Bermeoko herrian, ordutegi honen arabera zabalik egongo dan erabiltzaileen arretarako bulego bat edukitzeko konpromezua hartzen dugula: astelehenetik barikura, 9:30etatik 13:30etara beharko dau.

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:
NAN:

IX. ERANSKINA
Ibilgailuaren ezaugarriak

Marka:

Modeloa:.....

Matrikula:

Aintzintasuna (lehenengoko matrikulazioaren data):.....

Kilometroak:.....

Motorra:

Erregaia:.....

Gehienezko plaza kopurua:

 Jezarlekuak:

 Zutik joateko lekuak:.....

 Elbarrituentzat

Bermeon, 2014korenan.

Sinatuta:

NAN: